

FUNTZESKO JARDUERAK

1-Diseinua

Pelutheen diseinua erraza baina aldi berean **erakargarria** izan beharko da. Horretarako, **programa digitalen bidez** 3Dko diseinu **errealista** bat garatu ahal izango dugu. Kontuan izanda gure produktua hurrei zuzenduta dagoela, **pelutxea txikia** izango da (14 x 24 x 33cm), ehun zetaduna izango du eta **desagertzear** dagoen **espezieren** baten antza izango du. Diseinu **pertsonalizatua** nahi izanez gero, kontsumitzaileak bere eskakizunen berri eman beharko digu, eta hortik aurrera erabakiko dugu egin ahal izango dugun ala ez. Horregatik, bezeroekin harremana mantenduko dugu.

2-Pelutheen audioak

Pelutheen audioak grabatzeko, berebizikoa izango da **gidoiak prestatzea**. Gidoi bat baino gehiago egongo da, izan ere, **bost espezien** diseinua egingo dugu. Horretarako, animalien informazioa bilatu beharko dugu webgune fidagarrietan. Ondoren, prestatutakoa audio erreproduktoretan grabatuko ditugu.

3-Ekoizpena

Berebiziko garrantzia izango du kalitate-kontrola. Haurrentzako produktuak **seguruak** izan behar dira. Hori gauzatu ahal izateko, gure **lehengaiak kalitate onekoak** izan beharko dira, argi utzi behar dugu pelutxearen erabilera egokia egin behar dela eta **etiketan arriskuak** murrizteko argibideak jarriko ditugu.

4- Marketing-a

Bezeroen arreta deitzeko eta gure enpresan kontsumitzera bultzatzeko publizitatea erabiliko dugu. Eskoletan, haurtzaindegietan eta umeak maiz egoten diren lekuetan gure pelutheen **iragarki** deigarri eta koloretsuak jarriko ditugu. Horren bitartez, produktuen ezaugarrien, gure webgunearen, harremanetarako kontaktuaren... berri izango dute.

5-Salerosketak

Alde batetik, guk egindako webgunean eskainiko ditugu gure pelutxeak bezeroak erosotasunez eskatuz eta SEUR bitartez helaraziak. Bestalde, Afede jostailu dendari izakin batzuk salduko dizkiegu saldu dezaten eta era berean publizitatea eginez.

6-Erosketen ondorengo zerbitzua

Bezeroek produktuarekin arazoren bat izatekotan, gurekin harremanetan jarri ahalko dira haien kezka konpontzeko. Pelutxea itzuli nahi badute, guk izango gara gastuen arduradunak. Gainera, inkesta bat bidaliko diegu emailz gure zerbitzua baloratu dezaten.